

## Manipulazioa

Manipulazioa da tratu txarren eta jazarpen-egoeren euskarri izaten diren egituretako bat. Hezkuntzan, garrantzitsuak dira komunikazioa bideratzeko gaitasunak (entzute aktiboa, enpatia, asertibotasuna), baina baita, eta batez ere, arazoei aurre egiteko gaitasunak. Besteak beste, nabarmentzekoa da manipulazio-egoerak identifikatzeko eta kudeatzeko gaitasuna, berari esker geure burua defendatu eta beste batzuen kontrako eraso/jazarpen-egoerak geldiarazi ahal izango baititugu pertsona arteko harremanetan.

Printzipioz, Psikologiaren ikuspuntutik, manipulatzeari buruzkoa da: norbait nahi ez duen zerbait egitera behartzea, ohartuki edo oharkabean jokaera maltzurra erabiliz, hala nola komunikazioa blokeatuz, norbaiti zuzenean edo zeharka eraso eginez, emozioekin jokatzuz, gezurra esanez edo gezurrezko argudioak erabiliz (Edmuller eta Wilhelm, 2008).

Manipulazio-estrategiei buruzko gogoeta bideratzeko asmoz, nabarmendu ditzagun, abiapuntu gisa:

- Informazioa hautatzea eta iragaztea, era askotan. Esate baterako, objektibotasun-itxurak eginez, autoritate-argudioak erabiliz (adituak eta ezagutza pisuzkoak aipatuz...). Gezurra, maiz, hitz-erdi eta zurrumurruen atzean ezkutatu ohi da. Pertsona edo taldeen kontrako erasoak, oso sarritan, zeharka egin ohi dira; esate baterako, auzitan jarritik izaera, sinesgarritasuna, inpartzialtasuna edo zioak eta asmoak. Falaziak, berriz, manipulaziorako oso tresna baliagarria dira, eta honetan dautza: informazioa eta arrazoiak logikoak balira bezala aurkeztean, edo aukera batzuk aukera bakarrak balira bezala aurkeztean.
- Komunikazioa blokeatzea. Horrek jokaera sorta zabala hartzen du bere barne. Batetik, jokaera zuzenak ditugu, norbaiti adierazpidea galarazteko, hala nola hitza etetea, edo hitz egiten ez uztea. Jokaera horien ildotik, nabarmendu daitezke komunikazioa blokeatzeko beste estrategia aktibo batzuk: asko hitz egitea, berariaz, ezer ez esateko; hizketa beste arazo batzuetara eramatea; eta arreta desbideratzea. Nolanahi ere, arreta berezia eskaini behar zaie zeharkako blokeo-estrategiei, hala nola informazioari bidea eteari, norbaiten azalpenak entzutea ukatzeari eta haren galderei ez erantzuteari. Horiekin lotuta, aitzakiak ditugu; esate baterako denboraren presioa ("ez dago astirik") edo solaskideak dioena ulertzen ez delako plantak egitea.

- Emozioekin jokatzeko eta manipulazio-tresna gisa erabiltzea. Manipulatzeko, aski da norbait emozionalki ahaikatzea, kontrako mezuak igorri hura nahasteko, eta berarentzat kaltegarrien dena egitera bultzatuz bere onetik aterata erantzun dezan. Orobat, kontuan hartu behar da beldurraren eta erruaren erabilera, norbait zerbait egitera edo ez egitera bultzatzeko asmoz.

1.- Pertsona gisa, eta batez ere hezitzaile gisa, funtsezkoa da manipulazio-saioei antzematea, eta are funtsezkoago saiook kudeatzea. Ondoren, orientabide batzuk emango ditugu manipulazio-egoerak kudeatzeko (Edmuller eta Wilhelm, 2008); hortik abiatuta, eskatuko zaizu pare bat egoera deskribatzeko eta aukeratzeko zer estrategia liratekeen egokienak bakoitzarentzat.

- Lasai egotea, objektiboki eta leial jokatzeko, hau da, argudioak eta justifikazioak erabiliz.
- Inoiz ez ahaztea helburua.
- Beti gogoan izatea gauzak nola esan eta nola jokatu.
- Galdera onak (irekiak) egitea.
- Ondo entzutea.
- Hizketa zentratzea, zehaztasuna eskatuz.
- Ez entzun edo ez ikusi egitea.
- Manipulazio-saioaren aurrean, gaizki-ulertua balitz bezala erreakzionatzea.
- Egoera desblokeatzea, manipulazio-saioari zuzenean ekinez.

2.- Saia zaituz pentsatzen zer lotura dagoen manipulazioaren eta jazarpenaren artean. Ondoren, bilatu informazio gehiago.

Edmuller, A , Wilhelm, T (2009). *La Manipulation. L'art d'influencer a votre portée*. Bruxelles: Ecolibris